



## LARRIALDIETARAKO UDAL LAGUNTZEN ORDENANTZA ERREGULA- TZAILEA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

**Onartuta:** Udalbatzak 2013/04/29an

**Argitaratuta:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2013/07/02an

### AURKIBIDEA:

I. Kapitulua. Xedapen Orokorrak .....	3
II. Kapitulua. Araubide Ekonomikoa .....	6
III. Kapitulua. Prestazioa onartzea .....	8
IV. Kapitulua. Jaso behar ez ziren prestazioak itzultzea.....	12
V. Kapitulua. Prozedura-arau komunak .....	13
VI. Kapitulua. Finantziarioa eta transferentziak.....	13
Azken Xedapenak.....	14

## LARRIALDIETARAKO UDAL LAGUNTZEN ORDENANTZA ERREGULATZAILEA

18/2008 Legeak, abenduaren 23koak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoak, zenbait tresna arautzen ditu, honetarako: Bazterketa-arriskua prebenitzeko; bazterketa-egoerak arintzeko (pertsonalak, sozialak edo lanekoak); eta herritarren gizarte-eskubideak erabiltzeko behar adina baliabide pertsonalik, sozialik edo ekonomikorik ez dutenei gizarteratzen laguntzeko.

Hain zuzen ere, gizarteratzen laguntzeko eta bazterketa prebenitzeko tresnetako bat gizarte-larrialdietarako laguntzak dira. Laguntza horiek prestazio ekonomikoak dira, ez dira aldizkakoak, eta diru-laguntza gisa ematen zaizkie bizikidetzaren unitate batean bizi diren pertsonen, gizarte-bazterkeria prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko behar diren gastu espezifikoak, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko nahikoa baliabiderik ez duten pertsonen.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak dira, baina laguntza horiek emateko baliabideak ez dira nahikoak Bergarako biztanleen eskaerei erantzuteko. Hori dela eta, Bergarako Udalak partida ekonomiko bat aurreikusten du urtero, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-esleipenak bete ezin dituen eskaerei erantzuteko.

Bestalde, Estatuaren 38/2003 Legeak, apirilaren 17koak, Diru-laguntzen Lege Orokorra onartu zuen (*Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 276. zenbakia, 2003ko azaroaren 18koa). Haren helburua da Administrazio Publikoek ematen dituzten diru-laguntzen erregimen juridiko orokorra arautzea. Administrazio Publikoen artean, Tokiko Administrazioa osatzen duten erakundeak daude, 38/2003 Legearen 3.1b) artikuluan jasotakoaren arabera.

Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.2. artikulua ezartzen duenaren arabera, tokiko korporazioen diru-laguntzak arautzeko oinarriak aurrekontua betearazteko oinarrien esparruan onartu behar dira, diru-laguntzen ordenantza orokor baten bidez edo diru-laguntza bakoitzaren ordenantza espezifikoaren bidez. Gainera, lege horren hamalagarren xedapen gehigarrian ezartzen denez, 38/2003 Legearen araututako prozedurak tokiko korporazioen antolaketa- eta funtzionamendu-baldintzetara egokituko dira, erregelamendu bidez.

Puntu honetara iritsita, eta Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuek ematen dituzten diru-laguntzei dagokienez, Bergarako Udalak ordenantza bat egin du, arau hauetara egokituta: Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrera, haren garapen-erregelamendura –uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsia–, eta 18/2008 Legea (abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa).

Azaldutako zioengatik, Bergarako Udalak Larrialdietarako Udala Laguntzen Ordenantza Erregulatzailerik hau egin du, Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuek kudeatzen dituzten gizarte-bazterketako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko. Ordenantzak xedapen hauek ditu:

## I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da larrialdietarako udal-laguntzak arautzea, betiere Eusko Jaurlaritzaren gizarte-larrialdietarako laguntzekiko prestazio ekonomiko subsidiarioak edo osagarriak izanik.

### 2. artikulua. Definizioa eta izaera.

1. Larrialdietarako udal-laguntzak prestazio ekonomikoak dira, ez dira aldizkakoak, eta diru-laguntza gisa ematen zaizkie bizikidetzaren unitate batean bizi diren pertsona batzuei; alegia, gizarte-bazterkeria prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko behar diren gastu espezifikoak, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko nahikoa baliabiderik ez duten pertsonen.
2. Gizarte-larrialdietarako udal-laguntzak diru-laguntzak dira, eta Udal Aurrekontuan horretarako eslelitutako kreditua dagoen bitartean emango dira.
3. Bizikidetzaren unitatea edo etxebizitza edo bizilekua zer den definitzeko, 147/2010 Dekretuaren (maiatzaren 25ekoa, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa) 5. eta 6. artikuluei jarraituko zaie, hurrenez hurren.

### 3. artikulua. Gastu espezifikoak.

Aurreko artikuluko 1. idatz-zatian aurreikusitakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira gizarte-bazterketako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko gastu espezifikoak, ohikotzat edo ezohikotzat:

- a) Ohiko etxebizitza edo bizitokia eduki eta mantendu ahal izateko beharrezko diren gastuak, ondorengo guztiak barne:
  1. Alokairu-gastuak.
  2. Gizarte-larrialdian egon aurretik etxebizitza edo bizitokia erostean ondorio hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuak.
  3. Energia-, ur-, estolderia- eta zabor-gastuak, baita ondasun higiezinaren gaineko zergari dagozkionak ere, ondasunak landa- zein hiri-eremukoak izan.
  4. Ohiko etxebizitzan edo bizitokian bizi ahal izateko eta bertan oinarritako osagaiak edukitzeko beharrezko gastuak. Halako gastutzat hauek hartuko dira:
    - Altzariak erosteko gastuak.
    - Linea zuriko etxetresna elektrikoak erosteko gastuak.
    - Etxebizitza egokitzeko edo konpontzeko gastuak.
    - Etxebizitzan oinarritako instalazioak ipintzeko gastuak.
- b) Bizikidetzaren unitateko kide baten edo gehiagoren oinarritako beharrei dagozkien gastuak, hala nola janztekoari, hezkuntza eta prestakuntzari eta osasun-arretari dagozkienak, sistema publikoek gastu horiei aurre egiten ez dietenean.
- c) Aurretiko zorpetzearen gastuak, a) eta b) idatz-zatietan aipatutako gastu-kontzepturen batek edo bizitzako oinarritako premiei aurre egiteko gastuak sortuak.  
Oinarritako gizarte-zerbitzuen irizpidez gizarte-bazterketako egoerak arintzeko helburua duten kontzeptuak ere ordain daitezke. Kasu horietan, gizarte-zerbitzuek dagozkion txostenaren bidez justifikatu beharko dute gastua.

#### 4. artikulua. Ezaugarriak.

1. Gizarte-larrialdietarako udal-laguntzak helburu jakin baterako dira; beraz, helburu horretarako baino ezin dira erabili, artikulua honen 4.C idatz-zatia izan ezik.
2. Gizarte-larrialdietarako udal-laguntzak subsidiarioak eta, hala badagokio, osagarriak izango dira indarreko legerian aurreikusten diren ekonomia-erakundeak era guztietako gizarte-baliabide eta -prestazioei dagokienez, horiek onuradunari edo haren bizikidetzaren unitateko edozein kideri legezkoekin, bai eta ohiko etxebizitza edo bizitoki berean bizi diren beste pertsona batzuei legezkoekin ere. Gizarte-larrialdietarako laguntzak ere talde horretan daude.
3. Alokairu-gastuak ordaintzeko larrialdietarako udal-laguntzak eta diru-sarrerak bermatzeko errenta bateraezinak dira.

Halaber, Ordenantza honen 3. artikulua a) idatz-zatian aipatutako etxebizitza-gastuak ordaintzeko gizarte-larrialdietarako laguntzak eta etxebizitza-gastuetarako prestazio osagarria bateraezinak izango dira.

Gainera, gizarte-larrialdietarako laguntza kontzepturen batengatik jaso bada, ezin izango da larrialdietarako udal-laguntza kontzeptu horrengatik jaso.

4. Larrialdietarako udal-laguntzak transferiezinak izango dira, eta beraz, ezin da:
  - a) Obligazioen berme gisa eskaini.
  - b) Osorik edo zati bat eman.
  - c) Konpentsatu edo deskontatu, jaso behar ez ziren prestazioak itzultzeko izan ezik, Ordenantza honen IV. Kapituluan aurreikusitako terminoetan, edo hartzaileak Udala honekin zorrak baditu eta zor hori betearazpen-bidean badago.
  - d) Atxiki edo bahitu, aplikatzekoak diren Estatuko lege orokorretan aurreikusitako kasuetan eta mugekin izan ezik.

#### 5. artikulua. Onuradunak.

1. Une oro indarrean dauden eta Eusko Jaurlaritzaren gizarte-larrialdietarako laguntzak jasotzeko ezarrita dauden baldintzak betetzen dituzten pertsonak izan daitezke, Ordenantza honetan aurreikusitako moduan, larrialdietarako udal-laguntzen onuradunak —betiere betebeharrak ez badatoz aurka ondorengo atalean jasotakoarekin—:

- a) Bergaran erroldatuta egotea eta benetan bizitzea, gutxienez eskabidea aurkeztu baino 24 hilabete lehenagotik.

#### 6. artikulua. Onuradun bat baino gehiago batera gertatzea.

Onuradun bat baino gehiago badaude, Eusko Jaurlaritzaren gizarte-larrialdietarako laguntzen arauetan ezarritakoa aplikatuko da.

## 7. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

Gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Larrialdietarako udal-laguntzak zein helburutarako eman diren, horrexetarako baino ez erabiltzea.
- b) Eskatzaileari edo haren bizikidetzaren unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea, bai dagokion ebazpena eman aurretik, bai prestazioak irauten duen aldi osoan.
- c) Prestazioen eskubidea izateko betebeharraren inguruan zerbait aldatu edo gertatuz gero, gertakari horien berri Udalarari ematea, sortzen diren unetik aurrera zenbatzen hasi eta hamabost egun naturaleko epean, gehienez ere. Hain zuzen ere, gertakari hauek jakinarazi behar zaizkio Udalarari:
  1. Bizikidetzaren unitatearen osaeran eragina duten gertakariak, bai eta, dagokionean, larrialdietarako udal-laguntzen onura ateratzen duten beste pertsonen bizileku-aldaketak ere, eta edozein kasutan:
    - Bizikidetzaren unitateko kideren baten heriotza.
    - Titularra edo bizikidetzaren unitateko beste edozein kide egoitza-zentro publiko edo pribatuetan, zentro sanitario publiko edo pribatuetan, espetxeetan, desintoxikazio-zentroetan edo harrera-zentroetan sartzea, hilabeteko edo gehiagoko aldi baterako.
    - Bizikidetzaren unitatea uztea eta titularra ohiko bizilekutik ateratzea.
    - Adopzioa, familiako harrera iraunkorra edo adopzio aurrekoa, edo tutoretza.
    - Titularrekin 4. edo 2. mailarainoko odol-ahaidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna, hurrenez hurren, duen pertsona bat bizikidetzaren unitatean sartzea.
    - Bizikidetzaren unitatearen osaeran eragina duen beste edozein aldaketa.
  2. Prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarritzat erabili diren baliabideak ukitzen dituzten gertakariak, hala nola:
    - Hileroko diru-sarreraren motan edo zenbatekoan izandako aldaketak, eta ondare-gehikuntzak edo -murrizketak.
    - Diru-baliabideak handitzea, b) idatz-zatian aurreikusitako eskubide ekonomikoak baliatzearen ondorioz diru-sarrerak lortu direlako.
  3. Prestazioa onartzeko eskatutako baldintzaren bat aldi baterako edo behin betiko gaitzea ekar dezakeen beste edozein gertakari edo egoera.
- d) Onuradunaren ohiko bizilekuari buruzko edozein aldaketa Udalarari jakinaraztea, hori gertatu eta hamabost egun naturaleko epean, gehienez ere.
- e) Jaso behar ez zirela jasotako edo zenbateko okerrarekin jasotako prestazioen zenbatekoa itzultzea, Ordenantza honen VI. kapituluan aurreikusitakoaren arabera.

f) Udalaren aurrean agertzea eta harekin lankidetzan aritzea, hori eskatzen bazaie; Bergarako Udalak egiaztatze-jarduerarik egiten badu, onuradunek erantzun egin beharko dute, eta eskatzen zaien informazio guztia eman.

g) Eskatutako diru-laguntza justifikatzea.

h) Komunitatearentzako lanak egitea, Udalak eskatzen badie. Horretarako, titularrak eta haren bizikidetzta-unitatean lan egiteko adinean dauden kideek prest egon beharko dute komunitatearen aldeko lanak egiteko, lurraldeko ekintza boluntarioko erakundeen bidez, administrazioak ohiz kanpoko eran eskatzen badie. Hala ere, honako hauek salbuetsita egongo dira:

- Baliaezintasun absolutuko pentsioen titularrak.
- Ikasketa akademiko aratuak ikasten ari diren 23 urtez beherakoak.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuen iritziz komunitatearen aldeko lanak egin ezin dituzten pertsonak.

## II. KAPITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOA

### *8. artikulua. Zenbatekoa eta baliabideak zehaztea.*

1. Larrialdietarako udal-laguntzen zenbatekoa zehazteko, araudi honetan eta Alkatearen urteko ebazpenean ezarritakoa hartuko da kontuan.
2. Eskatzaileak eta haren bizikidetzta-unitateko gainerako kideek eskura dituzten baliabideak zein diren zehazteko, haien guztien baliabideak hartuko dira kontuan, gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko arauetan aurreikusitako terminoetan.

### *9. artikulua. Urteko gehienezko zenbatekoak.*

Gizarte Zerbitzuek proposatuta, Alkateak urtero ezarriko du zein izango diren urtean gehienez emango diren zenbatekoak, Ordenantza honen 3. artikuluan aurreikusitako gastu espezifiko bakoitzerako, larrialdietarako udal-laguntzen kontzeptuan.

### *10. artikulua. Gehienezko zenbatekoa eskatzaile bakoitzeko.*

1. Aurreko artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe, eskatzaile bakoitzari gastu espezifiko bakoitzerako zer gehienezko zenbateko eman zehazteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:
  - a) Eskatzaileak eta haren bizikidetzta-unitateko gainerako kideek eskura dituzten baliabideak, bai eta, dagokionean, 5.1.e) artikuluan adierazitako terminoetan laguntzen onura ateratzen dutenena ere.
  - b) Egindako edo egin beharreko gastu espezifikoaren zenbatekoa.
  - c) Gizarte-zerbitzuen balorazioa, gastuaren benetakoa beharri buruz eta laguntzak premia-egoeran dauden pertsonak gizarteratzen laguntzeko izan dezakeen garrantziari edo lehentasunari buruz.
2. Laguntzaren zenbatekoa zehazteko, portzentaje jakin bat aplikatuko zaio kontzeptu bakoitzerako gehienezko zenbatekoari. Urtero, larrialdietarako udal-laguntzen dekretu bidez, Alkateak kontzeptu bakoitzaren gehienezko zenbatekoa ezarriko du. Gastuaren benetakoa

zenbatekoa kontzeptuaren gehienezko zenbatekoa baino txikiagoa bada, benetako gastuaren zenbatekoari aplikatuko zaio portzentajea. Kasu bakoitzean aplikatu beharreko portzentajea Ordenantza honen 9. artikuluan aipatzen den urteko aginduan zehaztuko da, 1. paragrafoan adierazitako irizpideetan oinarrituta.

#### *11. artikulua. Laguntzaren benetako zenbatekoa.*

1. Eskaera bakoitzari esleitu dakioken benetako zenbatekoak hauek izango dira, gehienez ere:

- a) Alkateak urtero ematen duen dekretuan gastu espezifiko bakoitzerako ezarritako urteko gehienezko zenbatekoak.
- b) Muga hori eskatutako laguntza espezifikoari dagokio, bai eta, dagokionean, kasu honetan ere: Aurrekontu-ekitaldi berebean eskatzaileari edo haren bizikidetzta-unitateko edozein kideri edo etxebizitza edo bizileku berebean bizi diren beste pertsona batzuei beste laguntza batzuk ematen bazaizkie, Eusko Jaurlaritzak une oro aurreikusitakoaren arabera.
- c) Kasu partikular bakoitzean eman daitekeen gehienezko zenbatekoa, aurreko artikuluan aurreikusitako prozeduraren arabera ezarria.

2. Kasu partikular bakoitzean eman daitekeen zenbatekoa aurreko artikuluan adierazitako prozeduraren arabera ezarriko da. Hala ere, Udalak zenbateko hori txikiagotu ahal izango du, aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta. Kasu horretan, kontzeptu bakoitzerako gehienez ere eman daitekeen zenbatekoa ere txikituko da, Udalak nahikotzat hartzen duen portzentajea, eskatzaile guztien eskaerei erantzun ahal izateko. Erabaki hori Alkatearen dekretu bidez hartuko da.

#### *12. artikulua. Laguntzak emateko eta zenbatekoak kalkulatzeko mugak.*

Larrialdietarako udal-laguntzak emateko eta laguntzen zenbatekoak kalkulatzeko, muga hauek hartuko dira kontuan.:

- a) Larrialdietarako udal-laguntzak eskatzen diren urte berebean diru-sarrerak bermatzeko errenta edo DBEa jaso duten bizikidetzta-unitateen kasuan, bizikidetzta-unitatearen diru-sarreraren baturaren urteko zenbateko orokorra (diru-sarrera konputagarriak, bizikidetzta-unitate berberari eman dakizkiokeen prestazio edo laguntza ekonomikoak –diru-sarrerak bermatzeko errenta edo DBE gisa, edozein modalitatetan–, etxebizitza-prestazio osagarria, gizarte-larrialdietarako laguntzak eta larrialdietarako udal-laguntzak) titularraren bizikidetzta-unitatearen ezaugarri berberak dituen bizikidetzta-unitate bati urtero legozkiokeen diru-sarrerak bermatzeko errentaren gehienezko zenbatekoaren %200 izango da gehienez ere.
- b) Larrialdietarako udal-laguntzen onuradunen kasuan, baldin eta betetzen ari den urtean ez badira diru-sarrerak bermatzeko errentaren ezein modalitaterekin titularrak izan, bizikidetzta-unitate horren diru-sarrera konputagarrien guztizkoaren eta urte horretan larrialdietarako udal-laguntza gisa onartu zaion guztizkoaren baturak ezin izango du, inola ere, kopuru hau gainditu: Titularrarena bezalako bizikidetzta-unitate bati urtean zegokiokeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarritzko errentaren gehienezko

zenbatekoaren %200.

- c) Laguntzak ohiko etxebizitza edo bizitokia erosteko hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuei aurre egiteko badira, larrialdietarako udal-laguntzak hamabi hilabetez jasoko dira gehienez ere. Hori izango da bizikidetz-unitateak jaso ahalko duen gehienezko zenbatekoa, irauten duen denbora osoan, edo etxebizitza berberaren edo ohiko bizilekuaren gaineko kreditua ordaintzeko. Laguntza hori ez da inola ere bateragarria izango gizarte-larrialdietarako laguntzekin; gizarte-larrialdietarako laguntzen eta larrialdietarako udal-laguntzen artean, ezin izango dira hamabi hileroko baino gehiago jaso.
- d) Hala ere, c) idatz-zatian adierazitako muga ez zaizkie aplikatuko zahartzaroko, alarguntzako (65 urtetik gorakoak), lanerako ezintasun absolutuko edo baliaezintasun handiko pentsioen titularrei.

### *13. artikulua. Baliabideak eta ondarea zehaztea.*

1. Eskatzailearen, haren bizikidetz-unitateko gainerako kideen eta laguntza horien onura atara dezaketen gainerako pertsonen hilabeteko baliabideak zehazteko, Eusko Jaurlaritzaren gizarte-larrialdietarako laguntzen arauetan xedatutakoa hartuko da kontuan.
2. Behin hileko baliabideak aurreko paragrafoaren arabera zehaztuta, urteko baliabideak edo gastuei dagokien edo egokituko zaien denboraldiko baliabideak zehazteko, hileko baliabideak bider gastuei dagozkien edo egokituko zaizkien hilen kopurua egingo da.

### *14. artikulua. Behar beste baliabide.*

Eskatzailearen bizikidetz-unitatearen baliabideak eta prestazioei onura atara diezaieketen gainerako pertsonen baliabideak laguntzak lortzeko aukera eman ditzaketen zenbatekoak baino txikiagoak badira ere, ulertuko da behar beste baliabide dutela gastu espezifikoiei aurre egiteko, eta horren ondorioz, ezin izango dira gizarte-larrialdietarako udal-laguntzen onuradunak izan, honako kasu hauetan: Bizikidetz-unitateko edozein kidek zenbait ondare eta zerbitzu erosten dituela edo zenbait ondareren mantentze-gastuak ordaintzen ari dela egiaztatzen bada, baldin eta, gastu horiek egiteko, aitortutakoez eta prestazioaren bidez lortutakoez bestelako baliabideak behar badira, betiere titularrak edo bizikidetz-unitateko edozein kidek ezin badu egiaztatu baliabide horien jatorria diren baliabide ekonomikoak ez direla berarenak. Kasu horietan, 147/2010 Dekretuaren (maiatzaren 25ekoa, Diru Sarrerek Bermatzeko Errentarena) 20. artikuluan (ezohiko diru-sarrerari buruzkoa) xedatutako tratamendua emango zaie ondareei.

## **III. KAPITULUA. PRESTAZIOA ONARTZEA**

### *15. artikulua. Eskaera.*

1. Interesdunak aurkeztuko du eskaera; derrigorrez, gizarte-larrialdietarako laguntzen eskaerarekin batera aurkeztu beharko du. Horretarako, Udalean eskatzaileen eskura dagoen eredu normalizatua erabili behar du.



## *16. artikulua. Agiriak.*

Eskaera gizarte-larrialdietarako laguntzaren eskaerarekin batera aurkeztu behar denez, ez da beharrezkoa agiri gehiago aurkeztea, gizarte-larrialdietarako laguntzak lortzeko une oro eskatzen direnez gain. Dena den, Udalak egokitzat hartzen dituen beste dokumentu batzuk eskatitzake, eskatzaileek baldintzak betetzen dituztela egiaztatze aldera.

2. Bizilekua eta bizikidetza Biztanleen Udal Erroldaren bidez ziurtatuko dira. Ondorio horietarako, Udalak errolda-ziurtagiria erantsiko dio espedienteari. Ziurtagiri horretan, bizilekuan bizi diren pertsona guztiak azalduko dira.

4. Edozein kasutan ere, arintasuneko eta administrazio-ekonomiako printzipioak gauzatzeko eta Bergarako Udaleko departamentuen arteko lankidetzaren eta koordinazio-betebeharra betetzeko, Bergarako Udalak, larrialdietarako udal-laguntzen kudeaketaren esparruan, beharrezko neurriak hartuko ditu herritarrek jada Udalaren esku dauden datu eta agiriak ez ekartzeko duten eskubidea bermatzeko.

Bereziki, Udalak bitarteko elektronikoak erabiliko ditu informazio hori jasotzeko, betiere, datu pertsonalei dagokienez, interesdunen baimena badu, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera, edo lege-maila duen arau batek hori zehazten bada, salbu eta murrizketak badaude jasotako datu eta dokumentuei aplikatzeko den araudiaren arabera. Bitarteko elektronikoaren bidez igorri eta jaso ahalko da baimen hori.

## *17. artikulua. Prozedura izapidetzea.*

1. Udalak eskaeraren eta aurkeztutako agirien edukia zuzena den egiaztatuko du, bai eta larrialdietarako udal-laguntzak jasotzeko baldintza espezifikoak betetzen diren ere. Horretarako, beharrezkoak diren datu eta txosten guztiak eskatu ahal izango dizkie beste erakunde eta entitate publiko eta pribatuei edo eskatzaileari berari. Hala ere, prestazioa baliatzeke bete beharreko eskakizunak eskatzaileak betetzen dituela egiaztatzeke ezinbestekoak diren datu eta txostenak baino ez ditu eskatuko.

3. Eskaeran akatsik edo kontraesanik hautematen bada, edo eskaeran agiriren bat falta bada, Udalak espediente osatzeko edo konpontzeko beharrezkotzat jotzen duen beste edozein datu, agiri edo txosten eskatuko dio eskatzaileari edo beste edozein erakunde edo entitate publiko edo pribaturi. Hala ere, gerora, Udalak kontrol- eta berrikuste-jarduerak egin ahal izango ditu. 10 eguneko epean eskatzaileak ez baditu Udalak idatziz adierazi dizkion hutsuneak zuzentzen, eskatzaileak eskaera alde batera utzi duela ulertuko da.

## *18. artikulua. Eduki ekonomikoko eskubideak eta prestazioak egiaztatzea.*

1. Udalak egiaztatuko du eskatzaileak eta haren bizikidetza-unitateko kideek jaso ditzaketen eduki ekonomikoko gizarte-eskubideak eta -prestazioak osorik baliatu dituztela.

Horretarako, ondorengo kasuetan ulertuko da eskubideak oso-osorik baliatu direla:

- a) Edozein jurisdikzio-ordenari lotutako eskubide eta prestazioen kasuan, dagokion epaia edo beste ebazpen judiziala eman ondoren edo, halakorik ez badago, eskubidea edo prestazioa erreklamatzeko prozedura formaz hasi ondoren eta horretan atzera egin ez bada.

Ebazpen judizialak jadanik onetsi dituen baina jaso ez diren eskubideen edo prestazioen kasuan, horiek baliatu direla ulertuko da horiek eman behar dituen pertsonari dagokion ez-betetzeagatiko ebazpen judizialaren betearazpen-intzidenteari hasiera eman zaiola egiaztatzen denean.

b) Gainerako kasuetan, dagokion eskubidea edo prestazioa erreklamatzeko prozedura formaz hasita dagoenean, ez bada horretan atzera egiten edo ez bazaio horri uko egiten.

2. Baldin eta eskatzaileak edo haren bizikidetzta-unitateko kideek baliatu ez dituzten eskubide ekonomikoak hartzeke izango balituzte, Udalak eskatzaileari eskatuko dio dagokion erabakia eman aurretik bere eskubideak balia ditzala, indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera.

3. Baldin eta eskatzaileak ez badu betetzen aurreko paragrafoan aipatutako baldintza, eskaera ez egitea erabaki duela ulertuko da, eta Udalak espedientea artxibatuko du, inolako izapide gehiagorik gabe.

#### *19. artikulua. Ebazpena, ebazteko epea eta administrazio-isiltasuna.*

1. Gizarte Zerbitzuen txostena aztertu ondoren, Alkateak edo hark eskuordetutako organoak larrialdietarako udal-laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena emango du, eta horren berri emango dio pertsona eskatzaileari. Eskaera aurkeztu zen egunetik zenbatzen hasi eta gehienez ere hiru hilabeteko epean, laguntza eman ala ukatzen den ebatzi eta jakinaraziko da.

2. Aurreko epea berriazko ebazpenik gabe igarotzen bada, larrialdietarako udal-laguntzak ukatutakotzat hartuko dira, berriazko ebazpenik emateko betebeharra bazter utzi gabe.

3. Epe hori eten egingo da, baldin eta prozedura eskatzaileari egotz dakiokkeen arrazoiren batengatik geldiarazten bada.

#### *20. artikulua. Prestazioa ematea eta ordaintzea.*

1. Larrialdietarako udal-laguntzak eman ahal izateko, Gizarte Zerbitzuek benetako eta urgen-tziazko premia-egoera dagoela egiaztatu beharko dute beti, bai eta, diru-laguntzak direnez, aurrekontuetan horretarako esleitutako kreditua badagoela. Gainera, eskaerak zer ordenatan aurkeztu diren hartuko da kontuan.

2. Larrialdietarako udal-laguntzak haiek ematea onartzen duen ebazpenean aurreikusitako moduan ordainduko dira. Dena den, diru-laguntza horiek subsidiarioak direnez, emandako diru-laguntzen ordainketa automatikoki etengo da, baldin eta eskatzaileak beste laguntza bat edo Eusko Jaurlaritzaren gizarte-larrialdietarako laguntza jasotzeko eskubidea badu eta laguntza hori emateko aurrekontu-esleipena badago, Eusko Jaurlaritzak zenbatekoa handitu duelako edo beste kontzeptu batzuetarako diru-laguntzak ematea edo kontzeptu berberetarako laguntza gehiago ematea erabaki duelako.

3. Gizarte-zerbitzuek ezarritakoaren arabera, prestazioak zatika edo denak batera ordaindu ahal izango dira. Prestazioak emateko ebazpenean, organo eskudunak zehaztuko du nola egingo den zehazki ordainketa, eta epe bat ezarriko du egindako gastuen fakturak edo dagozkien frogagiriak aurkezteko. Fakturak edo frogagiriak aipatutako epean aurkezten ez badira, laguntzak itzultzeko prozedurari ekingo zaio, hala badagokio.

Laguntzak ordaintzeko unean eskatzaileak Udalari ordaindu gabeko betebeharririk betearazpenbidean izango balu eta betebeharririk hori laguntza ordaintzeko dataren aurrekoa balitz, konpentsatu egingo litzateke.

4. Larrialdietarako udal-laguntza pertsona eskatzaileari ordainduko zaio. Aurrekoa hala izanik ere, Udalak erabaki ahal izango du, Gizarte Zerbitzuek proposatuta, prestazioa eskatzailea ez den beste pertsona bati ordaintzea, honako kasu hauetan:

- a) Titularren ezintasuna legez aitortzea.
- b) Titularra egoitza-zentro publiko edo pribatuetan edo espetxeetan sartzea hilabeteko edo gehiagoko aldirako.
- c) Eskatzaileak prestazioa eman zen helbururako aplikatzeko betebeharra ez betetzea.
- d) Oinarrizko gizarte-zerbitzuak txosten bidez adieraztea eskatzaileak prestazioa eman zen helbururako aplikatzeko ezintasuna edo zailtasuna duela, arrazoi sozio-pertsonalak direla medio.

Kasu horietan, erreferentziako oinarrizko gizarte-zerbitzuaren iritiz egokiena den pertsonari ordaindu beharko zaio prestazioa, bizikidetzaren unitatean jarduteko gaitasuna dutenen artean, edo, bestela, adinez txikien edo urritasuna duten pertsonen kasuan, tutoretza edo ordezkariak legalki dagokion pertsonari.

5. Salbuespen gisa, hartzaileak hartu ahalko dira titularraz eta bizikidetzaren unitateko kideez bestelako pertsonak; bereziki, irabazi-asmorik gabeko gizarte-zerbitzuen erakundeetako pertsonak. Beharrezkoa da erakunde horiek behar bezala erregistratuta egotea Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 50.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Kasu horretan, erakunde horietako pertsonak prestazioen titularren eskubide eta betebeharririk berberak izango dituzte. Aurrekoari dagokionez, honako kasu hauek salbuespenetzat hartuko dira:

- a) Prestazioaren titularra bizikidetzaren unitatean jarduteko gaitasuna duen pertsona bakarria izatea.
- b) Prestazioa bizikidetzaren unitateko beste edozein kideri ordainduz gero, prestazioa eman zen helbururako aplikatuko dela bermatuta ez egotea.

## *21. artikulua. Egindako gastuen justifikazioa.*

1. Laguntza emateko ebazpenean, larrialdietarako udal-laguntzaren onuradunak egindako gastuen fakturak edo frogagiriak aurkeztu behar dituela ezarriko da. Fakturak eta frogagiriak aurkezteko epea ebazpenean zehaztuko da.

2. Egindako gastuen frogagirietan, haiek eman dituzten pertsona fisikoaren edo juridikoaren oinarrizko identifikazio- eta kokapen-datuak egongo dira; besteak beste, identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) edo nortasun-agiri nazionalaren zenbakia (NAN), gastuaren kontzeptua eta zenbatekoa adierazi behar dira.

3. Banku bidez egiten ez diren ordainketei dagokienez, pertsona fisikoaren frogagirietan, haien jaso izanaren sinadura beharko da, eta pertsona juridikoaren kasuan, aplikatzen zaizkien arauen

arabera eman behar duten faktura aurkeztu beharko da.

*22. artikulua. Atzera egitea eta uko egitea.*

Larrialdietarako udal-laguntzen eskatzaileak eskaeran atzera egin ahal izango du eskaera hori aurkeztu duen Udalari idazki bat bidaliz. Udalak kasu horretako zirkunstantziak adierazten dituen ebazpena emango du, zer gertakari izan diren eta zer arau aplikatu daitezkeen adieraziz.

*23. artikulua. Aldizkako berrikuspenak.*

Organo eskudunak bidezkotzat jotzen dituen berrikuspen guztiak egin ahal izango ditu laguntza ematea eragin zuten arrazoiek badira ala ez egiaztatzeko. Horretarako, laguntzen onuradunei eskatu ahal izango zaie Administrazioaren aurrean agertzeko eta hari laguntzeko.

#### **IV. KAPITULUA. JASO BEHAR EZ ZIREN PRESTAZIOAK ITZULTZEA**

*24. artikulua. Jaso behar ez ziren prestazioak itzultzea.*

Jasotako zenbatekoak itzuli eta, dagokionean, berandutze-interesak ordaindu beharko dira, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 36. eta 37. artikuluetan adierazitako kausaren bat gertatzen bada.

1. 21. artikuluan aipatutako fakturak edo frogagiriak aipatutako epean aurkezten ez baditu, onuradunak jaso behar ez zirela jasotako edo zenbateko okerrarekin jasotako prestazioak ere - itzuli beharko ditu.
2. Onuradunak larrialdietarako udal-laguntzak eskubiderik gabe edo zenbateko okerrarekin jaso baditu, orduan ere prestazioa itzuli beharko du.

*25. artikulua. Jaso behar ez zirela jasotako prestazioak itzultzeko prozedura.*

Aurreko artikuluan aurreikusitako edozein kasutan, jaso behar ez zirela jasotako prestazioak itzultzeko prozedura Udalak hasiko du, indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera.

*26. artikulua. Prestazioak itzultzeko prozeduraren epea.*

Itzultzeko prozeduraren ebazpena emateko eta ebazpen hori jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, prozedurari hasiera ematen zaionetik. Epe hori esanbidezko ebazpenik eman eta jakinarazi gabe mugaeguneratzen bada, prozedura iraungi egingo da, eta hori adierazten duen ebazpenak jardunak artxibatzea aginduko du. Prozedura pertsona interesdunaren erruz geldiarazten den kasuetan, ebazpena emateko eta jakinarazteko epea ere eten egingo da.

*27. artikulua. Diru-laguntzak aldatzea eta baliogabetzea.*

Diru-laguntza ematean kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek arrazoi berberengatik emandako laguntza ekonomikoen baldintzak aldatzen badira, diru-laguntza emateko erabakia ere alda daiteke.

#### *28. artikulua. Diru-laguntzak berrikustea.*

Honako hauek izango dira diru-laguntza berrikusteko eta, egokia bada, baliogabetzeko eta itzultzea eskatzeko arrazoiak:

- a) Beharrezko baldintzak bete gabe diru-laguntza jasotzea.
- b) Diru-laguntzaren helburuak osorik edo partzialki ez betetzea.
- c) Emandako diru-laguntzaren erabilera egiaztatzeko betebeharra ez betetzea edo behar bezala ez betetzea.
- d) Finantza-kontrolako edo egiaztatzeko jarduerak eragozteak, edo jarduera horiek egin ditzaten nahi ez izatea. Aurrekoaren ondorioz, jasotako diru-laguntzak behar bezala erabili diren, helburua bete den, eta helburu berbererako beste diru-laguntza batzuk jaso diren edo beste diru-sarrera edo baliabide batzuk dituzten egiaztatzeko jarduerak galaraztea.

## **V. KAPITULUA. PROZEDURA-ARAU KOMUNAK**

#### *29. artikulua. Datuen konfidentzialtasuna eta administrazioen arteko lankidetzak.*

1. Udalak eska ditzakeen larrialdietarako udal-laguntzen eskatzaile edo onuradunen, haien bizikidetzak-unitateko gainerako kideen eta prestazioaren onura izan dezaketen gainerako pertsonen datu eta txosten guztiak mugatu egingo dira, Diru Sarrerak Bermatzeko edo Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean eta Ordenantza honetan ezarritako prestazioak edota betebeharrak baliatzeko eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko ezinbestekoak diren mugatu ere.
2. Udalak bermatuko du organismo eskudunek espedienteak izapidetzerakoan lortutako datuak isilpean gordeko dituztela, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, izaera pertsonaleko datuak babestekoan, ezarritako moduan.

## **VI. KAPITULUA. FINANTZIAZIOA ETA TRANSFERENTZIAK**

#### *30. artikulua. Finantziak.*

1. Udalaren aurrekontuetan, urtero, larrialdietarako udal-laguntzen zenbatekoak finantzatzeko beharrezko baliabide ekonomikoak egongo dira jasota.

#### *31. artikulua. Arau-haustea eta zehapenak.*

Arau-hausteen eta zehapenen araubidea azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorreko IV. Tituluan eta haren Garapen Erregelamenduko (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsia) IV. Tituluan jasotakoa izango da. Prozedura izapidetzeko, azaroaren 26ko 30/1992 Legean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenean, eta otsailaren 20ko 2/1998 Legean, EAEko Administrazio Publikoen Zehapen Ahalmenari buruzkoan, ezarritakoa erabiliko da.

Edonola ere, zehapenek ez dute zertan behartu jaso behar ez ziren prestazioak itzultzera.

## **AZKEN XEDAPENAK**

*Lehena. Ordezko araubidea.*

Ordenantza honetan aurreikusten ez den guztiari dagokionez, une oro indarrean dagoen legedia aplikatuko da. Egun, hauek dira aplikatu beharreko legeak: 38/2003 Legea azaroaren 17koa, eta hark garatzen duen araudi orokorra; eta 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.

*Bigarrena. Ordenantza honen interpretazioa.*

Alkateak beharrezko arau guztiak eman ahal izango ditu Ordenantza hau aplikatzeko eta garatzeko, bai eta Ordenantza honen interpretazioaren inguruan sor daitezkeen zalantza guztiak argitzeko ere.

*Hirugarrena. Indarrean jartzea.*

Ordenantza hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta 15 egunera hasiko da indarrean.